



Kalenteri

ZARAUZKO
XXVI

KALE ANTZERKI
JAIALDIA

Uztailak 4-5-6-7 / 2019

Kalerki 2019

OSTEGUNA 4

19:00	FRONTOI TXIKI	JULE (HORTZMUGA TEATRO)
20:00	MUNOA	BASOA (DANTAZ)
21:30 eta 23:00	TORRE LUZEA	CALOR (JEAN PHILIPPE KIKOLAS) *
22:00	VILLA MANUELA	VIDA (JAVIER ARANDA)*

OSTIRALA 5

19:30	FRONTOI TXIKI	GU AGUSTINA (EREINTZA DANTZA TALDEA)
20:00	KALEZ-KALE	MANEZ ETA KOBREAK
22:00	VILLA MANUELA	VIDA (JAVIER ARANDA)*
22:30	MUNOA	THE BLACK BLUES BROTHERS
23:30	FRONTOI TXIKI	TOUR VACANAL 2019 (DE VACAS)

LARUNBATA 6

18:30	MUNOA	WE-DING! (LOS MOÑEKOS)
19:00	FRONTOI TXIKI	PROZAK (MALAS KONPAÑIAS ZIRKO TALDEA)
20:00	LEGE ZAHARREN ENP.	TOUT IRA BIEN (CIE DÉ-CHAÎNÉE)
18:30, 19:30 eta 20:30	LARROSATEGIA	BENDITAS (EL MONO HABITADO)*
23:00	MUNOA	NO SIN MIS HUESOS (IRON SKULL CO.)

IGANDEA 7

18:30	KALEZ KALE	ENZIERROA ZEZEN PUZGARRIEKIN
-------	------------	-------------------------------------

*edukiera mugatua.

Oharrak:

Eguraldiaren arabera, emanaldien lekua eta ordutegia aldatu ahal izango da.

Edukiera mugatua duten emanaldietan bi saio egingo dira. Sarrera txartela ekitaldiaren egun berean Modelo Aretoko txarteldegian hartu beharko da 17:00fatik aurrera.



JULE

HORTZMUGA TEATRO

(Euskal Herria)

ANTZERKIA

55 minutu

Eraikuntza bat eraistear eta bertako biztanle batek handik ateratzeari uko; izan ere, ametsa, edo hobe esanda, hainbat amets bete gabe ditu oraindik. Eraikuntza-lanetako zaindaria, aldiz, familia ezaren hutsuneak jota, ametsetan ernai; eta neskatoak, bilobak, familia zeharo ahaztuta, dagoeneko ametsetan ere ez daki.

Konpondu beharreko katramila edo eta amets egiteko aukera paregabea; galdutako maitasuna berreskuratzeko eta ametsak gogoz amestu behar direla sekula ez ahazteko aitzakia, direnak direla ere eta ezinezkoak dirudifen arren. Amestu dezagun beti gogoz, begiak zabalik eta ernai.

JULE familia osoarentzat zuzendutako kale-ikuskitza da. Lan honetan umorea, fantasia, irudimena eta publikoarengana hurreratzeko geure modu berezia nabarmen ageri dira.

Antzezleak: Alex Antunez, Arantza Goikoetxea, Estibaliz Villa/Iraitz Lizarraga.



BASOA

DANTZAZ

(Euskal Herria)

DANTZA

35 minutu

Basoa. Estalkia. Gordelekua. Magiaz betetako lekua edota beldurgarria. Historiako momentu tragiko jakin bat ezkutatu eta ahaztea nahi zuen basoa. Errefuxiatuen kanpalekua, kontzentrazio esparrua...

Gurs; milaka pertsona metatu eta hil ziren barrendegia.

Historikoki eta geografikoki hurbil dugun kokalekua.

Gurs hausnarketa eragiten duen abiapuntua. Guden eta pobrezia-aren ondorioz beren lurraldea uztera behartuak dauden milaka pertsona errefuxiatuen erakusleiho.

Gurs, iraganaren eta orainaldiaren zubia.

*edukiera mugatua.



CALOR

JEAN PHILIPPE KIKOLAS

(Gaztela eta Leon)

ANTZERKIA

50 minutu

Etixerik gabe bizi diren pertsona askoren egoera du iturri CALORek, etxea uztera derrigortuak izan ziren oharkabeko bidaiariak, sutondotik, bat-batean, alde egitera bultzatutakoak. Leku baten bila mundua zeharkatzen duten nomada garaikideak dira, gizarteak eta kulturak, atzerriko hiri eta herriak itsuka haztatzen dituztenak. Etxe berria aurkitzeko gogo eta esperantzan, denborarik gabe bidaiatzen duten ibiltariak.

Egile eta antzezlea: Quique Mendez.

*edukiera mugatua.



VIDA

JAVIER ARANDA

(Aragoi)

ANTZERKIA ETA TXONTXONGILOAK

55 minutu

Bi esku eta josteko otarrak osatzen duen unibertsoa. Eskuz egindako gauzek izaera propioa dute, eskuak izatearen parte baitira, horien protagonista, mugimendu, emozio eta biziaren sortzaileak. Otarre bat jitoan, bidaia... edozein izkinetan, edozein otarretan, bizi-kimuak azaleratzen dira, bizi baliotsuak, bereziak eta bakarrak.

Sortzaile eta manipulatzailea: Javier Aranda.



GU AGUSTINA

EREINTZA DANTZA TALDEA

(Euskal Herria)

DANTZA

30 minutu

Pilota, emakumea, bertsolaritza, musika eta dantza. Osagai hauek emakumezko raketisten ibiliak jarriko ditu plazan “Gu Agustina” ikuskizunak. Jokoa bezala bizia eta dinamikoa, dotorea eta fina. Maddalen Arzallus bertsolariak jarriko dio ahotsa Agustina Otaolari eta Ereintza Dantza Taldeko musikari eta dantzariak haren ibilerak eszenaratuko dituzte.

Bertsolaria: Maddalen Arzallus.

Dantzariak: Ereintza Dantza Taldea.

Musikariak: Mikel Oliveri, Andoitz Antzizar, Itziar Etxegarai eta Iñaki Letamendia.

Koreografiak: Jon Maya.



MANEZ ETA KOBREAK

MANEZ ETA KOBREAK

(Euskal Herria)

MUSIKA

75 minutu

Metalezko musika jotzaieak, kobreak jotzeaz gain kantariak ere badira. Euskal Herriko ehunka talde informal bezala, gorotik kantatzen dute. Denak nomadak bihurtu dira eta batzuk ofizio berri bat hartu dute. Taldearen musika tradizioan oinarritzen da eta aldi berean, doinu berrien freskotasuna eta txistukatzen diren kantuen bizitasuna dauka. Haizezko instrumentuak eeta ahotsak uztartuz, kondaira eta istorioen bidez, sentikortasunezko Euskal Herri poetiko bat, egiazkoa eta asmatutakoa, deskubrituko dugu.

Ahotsa, perkusioa, konposizioak, moldaketak: Thierry Biscary.

Ahotsa, musikariak: Ana Tellaetxea, Fermin Garaikoetxea "Mintxo", Vianney Desplantes, Bixente Etchegaray, Laura Etchegoyen.



THE BLACK BLUES BROTHERS

THE BLACK BLUES BROTHERS

(Kenia)

AKROBAZIAK

45 minutu

Keniar akrobata talde batek, Blues Brothers ospetsuen musika eta estetikaren babesean, rhythm & blues-ek kaleratzen duen antzinako irrati bateko bitxikeriak jarraitzen ditu. Herriko zirkoaren eta komedia musikalaren arteko ikuskizunean, etengabeko akrobazia eta oreka sinestezenak, txiste barregarriak eta publikoa parte hatzera bultzatzen duten dantza-erronkak ikusiko ditugu. Jauzi mortalak, giza piramideak, eta muturreko antzerki fisiko publiko ororentzako den proposamen bertutetsuan.

Artistak: Musa Bilal Huka, Amini Rashid Kulembwa, Mohamed Seif Mlevi, Salim Mohamed Mwakidudu eta Ali Amisi Pati.



TOUR VACANAL 2019

DE VACAS

(Galizia)

MUSIKA

75 minutu

Lau behi dira. Farreegin eta abesten duten lau behi. Erreketako ura bezain freskoa den ikuskizuna aurkezten dute. Ondo pasatzen dute oholza gainean, zuek ere ondo pasa dezazuen. Ahots eta gitarra nahasketa, zentzuak kitzikatzen dituzten harmoniak. Munduko hizkuntza guztietan abesten dute, baina bertako poetak maite dituzte guztien gainerik, Enrique Iglesias kasu. Ahaztutako erreplikak berreskuratzen dituzte, Cristina da Agueira edo Monika da Laranxeiraren ahotsetan hain ezagunak izan diren kanta-marmarrak. Zatoz beraiekin larrera!

Musika, ironia, umorea, freskotasuna, adimena eta sorkuntza barra-barra.

Paula Romero: ahotsa

Inés Salvado: ahotsa

Faia Díaz: ahotsa

Guillermo Fernández: gitarra

Manolo Dourado: soinu-teknikaria



WE-DING!

LOS MOÑEKOS

(Katalunia)

DANTZA

20 minutu

Bi emaztegaiantzako kale-ikuskitzuna da We-Ding! Gonbidatuta zaudete guztiok, ez da baieztatut beharrik. Ez ahaztu arroza, eta, batez ere, pasa oharra Marianori, ez dadila berandu iritsi, arren!

Danza Escena 2018k gomendatutako ikuskizuna.

Emaztegaia: Sarah Anglada.

Beste emaztegaia: Miguel Fiol.



PROZAK

MALAS COMPAÑIAS ZIRKO TALDEA
(Euskal Herria)

ANTZERKI-ZIRKUA

55 minutu

Batereohikoa ez den familiabaten bitartez egoera burugabez beteriko unibertsoan murgilduko gara, oharkabean familia horren parte bihurtu arte. Antidepressibo osasuntsu eta eraginkorra dakarkizuegu, BARREA eta EMOZIOA. Gure PROZAK propioa pilula ikusgarrian.

Ekoizpena: Malas Compañías Zirko Taldea.

Zuzendaria: Maite Guevara.

Aktoreak: Ariñe Azkue, Koldo Arakistain, Javier Garcia "Mimo", Maite Guevara eta Mikel Pikaza.



TOUT IRA BIEN

CIE DÉ-CHAÎNÉE

(Frantzia)

ANTZERKIA

45 minutu

Clown eta keinu-antzerkiaren artean, TOUT IRA BIEN-ek ezegonkortasunaren eta bakardadearen aurka borrokatzen duen emakumearen istorioa kontatzen du, umorea izanik arma bakarra. Lana aurkitu. Dei baten zain egon. Aukera hori lortu. Horrela sortzen da TOUT IRA BIEN, Doloresen historia; bere burua kolokan jarri, eztabaidatu, borrokatu eta irauten duen emakumea. Bizitzaren zaplaztekoetz gain, bere buruaz farre egiteko gai den emakumea. Eta patuaren bitxikeriaz farre egiten, aurkakotasunari aurre egiteko errezeta emango digu . Zer prestatuko dio bizitzak oraingoan? Egoste-denborak esango digu nolako pastaz eginda dagoen...

Sorkuntza, zuzendaritza eta interpretazioa: Maria Cadenas.

*edukiera mugatua.



BENDITAS

EL MONO HABITADO

(Euskal Herria)

ANTZERKIA

20 minutu

Artzaiak, artaldearekin, mendian dabiltzala Ama Birgina agertzen zaie, edo horrela uste dute, bederen. Bi emakume eta dirdira bat gizatiarra eta jainkotiarra denari buruzko elkarrizketa batean. Gaitzespenez ariko dira, baina baita ulermen eta adiskidetasunez ere. Arkakuso eta mirarien arteko zorakeria.

Interpreteak: Begoña Martin Treviño eta Carmen San Esteban.

Testua eta zuzendaritza: Raul Camino.



NO SIN MIS HUESOS

IRON SKULLS CO.

(Katalunia)

HIRI DANTZA

35 minutu

NO SIN MIS HUESOS (2016) Migel Cervantes hil zeneko laugarren mendeurrenari oroitzapena egiten dion lana da (apirila 16'16). Iron Skulls Co-ek idazlearen biografia aztertzen du, bere historiaz eta Urrezko Mendeko Espainiaren testuinguru sozio-politikoaz eragina izateko, sorkuntza-kontzeptu interesgarrienak erlijioa eta armada izanik. Taldearen errepertorioetik abiatzen da, eta ametsetako mundura eramango gaitu, non mamu eta pentsamendu obsesiboek idazlearen bizitzan garrantzi handia duten, Aljeran izandako egonaldikoak, bereziki. Iron Skulls Co. taldeak sorkuntza garaikidea aurkeztu du, eta, 'theatrical breakin'-aren bitartez, hausnarketa egitea proposatzen du: soldadu zaputz batek energia ezkorra arte nola bilakatu zuen eta soldadu izatetik, nola pasa zen literatura unibertsaleko idazlerik garrantzitsuenetakoa izatera.

Zuzendaritza eta koreografia: Iron Skulls Co.

Interpreteak: Adrián Vega, Facu Martín, Luis Muñoz, Diego Garrido, Anna Sagrera, Moisés "Moe" & Héctor Plaza "Buba".



ENZIERROA ZEZEN PUZGARRIEKIN

TIC TAK PRODUCCIONES

(Nafarroa)

ENTZIERROA

75 minutu

Jantzi zuriak eta zapi gorriak prest!!

Entzun arren San Fermin
Zu zaigugu patro
Zuzendu gure oinak
Entzierro honetan otoi.

Gora San Fermin!!



ZARAUZKO UDALA

KULTURA DEPARTAMENTUA



@kulturazarautz



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gaztakeria
eta Kirol Departamentua

